

---

## Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat

Bernard Oyharçabal

---

**Édition électronique**

URL : <http://journals.openedition.org/lapurдum/1545>  
DOI : 10.4000/lapurдum.1545  
ISSN : 1965-0655

**Éditeur**  
IKER

**Édition imprimée**

Date de publication : 1 octobre 1999  
Pagination : 81-105  
ISBN : 2-84127-156-0  
ISSN : 1273-3830

**Référence électronique**

Bernard Oyharçabal, « Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat », *Lapurdum* [Línea], 4 | 1999, Sarean emana---an 01 avril 2010, konsultatu 31 janvier 2020. URL : <http://journals.openedition.org/lapurдum/1545> ; DOI : 10.4000/lapurдum.1545

---

Oyharçabal B. | IKER

B. OYHARÇABAL

## EUSKARAZKO IRAKASKINTZAREN HISTORIA OROREN ESKOLEN ILDOTIK, IRAUTZAREN FRANTSES GARAIKO ESKOLA LIBURUXKA BAT

Artikulu honek bi helburu ditu : lehenbizikorik ezagutzena ematea katixima hutsa ez den euskarazko eskola-liburuxka bat, duela berrehun bat urte egina, erran nahi baitu, segurenez ere, dugun dokumentazio urri baino urriagoaren araberako mota horretako testurik zaharrena ; bigarrenekorik, agerian ezartzea 19. mendea arte izan zela Iparraldeko eskola herrikoietan euskarazko irakaskintza bat, maila apalekoa, eta alde horretarik orain jenderteratzen dugun irarlan hau, zenbait alderditarik aro berriagoen seinaleak ere dauzkan arren, eskola tradizio zaharrago horri darraion zerbait dela.

Lehenbiziko partean Iraultza aitzineko Iparraldeko *ororen eskolez* hitz bat erranan dugu, haiei esker bereziki izan baitzen 17 eta 18. mendeetan idatzia gainean finkatua zen euskarazko ekoizpen bat, behe mailako gizarte-taldeentzat egina. Belapeyreko utzi digun lekukotasuna baliatuz bereziki, eskola horietaz zenbait informazio eman ondoan, haien helburuez eta eraginaz ariko gara. Bigarren partean *Instructionea, gazteriarentçat* eta *Haurren instructionea* deitu bi idazkien ezaugarri nabarienak agerrazako ditugu, eta ondotik testua eskainiko.

### 1. Iparraldeko ororen eskolak 19. menderaino.

Nahiz Euskal Herriko historia ikertzen duten liburuetaez diren biziki aipatzzen, izan ziren 17. mendean, eta are gehiago, 18. mendean, Iparraldeko euskal herrialdeetan, erresumako beste aurkientzatan bezala, hala nola Biarnon<sup>1</sup> eta Baionan<sup>2</sup>, Frantzian *petites écoles* erraten zitzaien, eta euskaraz Belapeyreko *ororen eskola* deitu zituen eskolak. Egitura horiek, maiz herriek berek antolatzen bazituzten ere, eta erregeek, 1698tik aitzina oroz gainetik<sup>3</sup>, sustatzen, elizak bultzatu zituen, Trentoko kontzilioaren ondotik bereziki<sup>4</sup>, bere irakaskintza jendeen artean hobeki finkatzeko. Elizaren erakundeetarik kanpo izanagatik askotan, batez ere herri gotorretan, elizako buruzagiek begipean zeuzkaten, eta apezpi-kuak parropietan egiten zituen bisitetan, hori zen behatzen zien puntuetarik bat, hots, ea eskolatze hori egiten ote zen egiazki, eta parropiako errejenta elizako buruzagiek onartu ote zuten. Euskaraz egina zen eskolatze hori Euskal Herrian, bai Baionako diosesan, bai Oloroekoan eta Akizekoan<sup>5</sup>.

Antolamendu horren berri ematen digute aski garbiki Belapeyreko bere katiximaren (1696) atarian argitara eman zituen hiru dokumentuk. Lehenbiziko biak frantsesetik dira, hirugarrena euskaraz.

Lehena da ordenantza bat (27/07/1693), Belapeyreko, Camalbidek eta de Bisqueyk izenpetua, hartan, aitzineko legezko oinarriak gogoratu ondoan, hauxe jakinarazten baita : *Nous avons ordonné, au conformément au susd. arrêt du Conseil d'Etat du 18 septembre 1665 tous les curés du présent païs de Soule, feront incessamment établir chacun en droit-soy, par la voye du droit, un ou deus Régens d'école, de la qualité requise, selon la portée, & situation de leurs paroisses, pour l'instruction & éducation des enfans dans la crainte de Dieu, & la connoissance de ses saints mystères, compris au catéchisme du présent diocèse, que nous avons composé en langue basque, vulgaire du présent païs, au dépens de chaque communauté.*

Bigarrena beste ordenantza bat da, 1695eko, Lextarreko jujeei Chamalbide, Zuberoan Promotoraren ordaina zenak adierazia. Hemen gorago aipatu ordenantza berriz hartzen du, eta zehazten du nork pagatu beharko duen irakaskintza, dioelarik : *Il vous plaise de vos graces, ordonner à tous les jurats députés, & à leur défaillance, aux margilliers des grandes œuvres de chaque paroisse du présent païs de Soule, & ainsi députés nés d'ancienneté desd. Paroisses, de faire établir & gager incessamment des maîtres des petites écoles, & même des maîtresses s'il est possible, les tous de la qualité requise, & dans la forme telle que de droit, sur tous les contribuables de leur communautés, lequels elles entretiendront continuellement & à perpétuité par les voyes convenables qu'ils avisent.*

Hirugarrena euskaraz egin ordenantza da, Belapeyreko Zuberoako *ofizial* gisa Zuberoako erretor eta bikariei manatua. Aitzinean aipatu dokumentuetan oinarriturik, adierazten die nola joka. Katiximaren irakasteko eta *ororen eskolak* sortzeko beharraz ari izan ondoan, galdegiten die apaizei eta bikarioei, edo berek sortzeko eskola hori, baldin beste lanek astirik uzten badie, edo bestela eginarazteko, horretarako elizako buruzagiek onetsi bizitze oneko norbait hautaturik : *Erretor eta Vicariec biciki escola eraciren dutie bere Parropietaco haur gaztiac, chipiçaroan hiki ikhas, eta hartia hobeki bethicoz beguiratzen ahal dielacoz. Hala goure Jaun Apezcupiaren ordenancen arau, Norc bere Parropietan, Ororen escolabat eçar eraciren die ahalic sarriena, çognez arrancura berhecibat Vkenen baitie here erretorietaco eguinbidec leku derieno, auher eztaudian, nontic sortzen hoiitura vicioac ; edo beste escola burçagui onsa ikhassi, bicitce honetaco, eliçaco javez onhexi datian, bati eraguinen.* Halaber, neska-eskola, ahalaz bereiz, eragin dezaten eskatzen die Belapeyreko erretoreei, parropiak ordaindu emazte bat emanet errejent gisa : *Baita ahalaz eçariren berbez nescatilen, serora edo beste burçaguissa berhalacoac* : çoin saristatu baitirate Parropiaz, goure erregue Jaunaren, haren *Conseilluco*, eta Intandanten erregla honen arau.

Eskola horren ibilera segitu beharko dute erretoreek, eta parropia tipienetan aski indarrik ez bada errejent baten izateko, elkarretaraziko ditu haurrak : *Erretorec ardura ikhoussiren dutie escolac, iaquiteco erregentac bere eguinbide-tan diratiane. Eta Parropia chipiec ezpadie indar aski erregent bederaren etche-quiteco, eliçaco Guehinez lagunturic, hourac algargana eraciren dutie, ororen gain arteco erregent baten eçarteco.*

Irakaskintza hori urte guztian emateko izanen da, salbu, lur lanengatik, uztail-abuztueta eta urrian : *Azkenecoz Çuberoa herri hontaco Promotora manatzen dugu, iratçarriki orotan valia eraci deçan legue haur, bestela honen hauxliac gaz-*

*tigatu içanen dira cinez khorte espiritualian : Salbu uztaila, Agorrila, urrieta hilabetetan, noiz baitira lur lanen lehia bicigarriac.*

Azkenik, herritar guztiak ordenantzaren berri izan dezaten eta ahantz ez dezan galdatzen die erretoreei, urtean bi aldiz ordenantza irakurtzeko elizetan : *Eta hobeki oro eguinbide honçaz orhit ditian, erretorec ourthecal Pronoaren ondoan, Ordenança haur goraki iracourturen die domi seinthoreren bi ondoko lehen igantean.*

## 2. Ororen eskolen egitekoa.

Erran gabe doa irakaskintza honen sortzeko lehen arrazoia katiximaren ikasraztea izan zela. 1739.ean argirata eman zen *Méthode familière pour les petites écoles erraten da : la lecture et l'écriture [...] ne doivent être regardées que comme accessoires et comme des moyens qui conduisent à cette fin.* (Croix & Quiénart, 1998 : 336)

Hala dio Belapeyre ere Euskal Herrian, eta horregatik hain zuen egin zuen euskarazko katixima : *Erregentece astecal haurrer eracaxiric, Igantian erran behar dukeyen catechima, bethi lagunturen dutie hartara, hayen gogoz onsa erraitera urgazteco. Eta hora erran urhentu datianian, bere Igante segnharatien arau, berriz has eraciren derie, aski iakin su diratiano.* Ikus daitekeenaz, eskole-tako errejentek haurrek katiximaren ikastera lagundi behar zituzten, eta elizara eraman (erretoreen kontrolaren errazteko gisan dudarik batere gabe).

Lapurdin ere, berdintsu ziratekeen gauzak : 1747an, apezpikuaren bisitaren ondotik Miarritzeko parropiaz egin zen erreportaren agertzen da ohar bat, zuzentzeiko den makur gisa aurkeztua, baizik eta igande eta besta egunetan errejentek ikasleak elizara eramatzen ez zituztela (Haristoy, 1890-91 : 22).

Erlificioari zetxizkion egitekoen lehentasuna erakusten du halaber, 1703an apezpikuak egin bisitaren ondoko erreportaren arabera Behorlegin gertatuak : herritarrek eskaturik, manua eman zuen apezpikuak ordu arte eskola baten atxikitzeko enplegatzan zen dirua handik aitzina apaiz bati ordain zekion goizeko meza emateko (Haristoy 1890-91 : 06).

Halere eskolatzearen bestelako ondorioak ere kontuan hartzen dira. Belapeyre, adibidez, erretoreei azpimarratzen die haurren eskolara etorrarazteko komeni izanen dela gurasoei esplikatzea haientzat ere probetxugarri izanen dela haurren eskolaraztea, batek haien jakitateaz baliatzen ahalko baitira, eta manukorragoak izanen baitira : *Orano erretorec eçagut eraciren derie aita amer, burçgui burçguisser bere haur eta cerbutchariac onsa escola eraciten badutie, lehenic hayen iaktiaren frutia berec goçaturen diela ; ceren Gincoaren leguiac ikhassiric, haren cerbutchari hobe baitirate, hanbatenaz emiago eta bere peco baitutukie.* (Belapeyre 1696)

Pentsa daiteke zenbait kasutan, herri tarroenetan bereziki, errejentei katiximaz landa besterik ere irakastea eskatzen zitzaiela ertejentei. Errejenten eginbideak zehaztean azpimarratzen du Zuberoako ofizialak erlilio irakaspenak izan behar duela lehentasuna eta ez letren ikasketak : *qu'en toutes choses, ils [errejentek] travaillent avec plus de soin à leur [ikasleen] avancement spirituel, qu'à l'étude des lettres* (1693ko maiatzaren 27ko ordenantza).

Badirudi, halere, batzuetan bederen elizarekilako lokarriak laxoago zirela. Apezpikuek, adibidez, behin eta berriz diote errejentak han edo hor ez direla onetsiak izan, horrek adierazten baitu errejenta, erretoreari erran gabe, edo bederen honek onetsi gabe, hauta zezaketela. Baionako apezpikuak 1737an egin zuen itzulian hogeい bat herrian bederen baziren onespenik gabe zeuden errejentak Lapurdin : Aiherran, Angelun, Arruntzan, Bastidan, Basusarrin, Beskoitzen, Bidarten, Donibane Lohizunen, Hiriburun, Kanbon, Itsasun, Larresorron, Makaean, Miarritzen, Mugerren, Senperen, Urketan, Urruñan, Uztaritzen, Zuberoano.

Menturaz Zuberoan izan zuten eskola horiek eliza gizonen aldera askatasun gehienik : han bakarrik aurkitu dira, J. Egiategiren idazkiekin, errejent haien utzi idazlan zenbait, eta han bakarrik sortu da, dudarik batere gabe eskola horiei zerbaiz gisaz zor zaien kulturazko ekoizpen bat, aipatu nahi baititugu Zuberoako trjeriak edo pastoralak, errejentek sorrarazi eta biziari aziņtuztenak.

### 3. Ororen eskolen eragina.

Guti ezagutzen ditugu, oinarrizko irakaskintza orogaratzen hasi baino lehenago garaietan, hain urrun ez ditugun 17 eta 18. mendeetan, izan ziren eskola horiek, euskal herrialdeetan, Iparraldeko herri gehienetan bederen, euskaraz egiten zirenak, eta gisa batez cuskarazko irakaskintzari lehen urratsak eginarazi zizkiotenak.

Erresuman molde desberdinan egin zen eskolatze herrikoi hori. Frantziako iparraldeko eta ekialdeko parteetan franko aitzinatua izan zen, anitez gutiago berriz hegoaldeko parteetan, salbu Biarnon. Eskolak hiru maila zituen bata bestearen ondotik iragan behar zirenak : lehena zen irakurtzea, bigarrena idaztea, eta hirugarrena kalkulatzea. Haurrek maila horien arabera ordaindu behar zuten eskolatzea : *dans la hiérarchie des matières choisies et payées l'arithmétique ou l'art de chiffrer coûte toujours deux ou trois fois plus que l'écriture, et l'apprentissage de la lecture représente le premier niveau d'enseignement.* (Butel et Manton 1977 : 27)<sup>6</sup>

Horregatik ongi bereizi behar dira elkarretarik eskolatzea eta alfabetatzea (alfabetatze osoa bederen) : *La dissociation entre la lecture et l'écriture représente un fait essentiel de la scolarisation dans la période moderne. Cette dissociation vient réduire singulièrement la portée de la scolarisation, empêchant la majorité des enfants qui fréquentent l'école d'accéder au niveau de l'écriture.* (Butel et Manton 1977 : 29)

Ez da erraz oinarrizko irakaskintza horren eragina eta ekarria neurtzea. Jendeen idatziari buruzko gaitasuna izartzeko, baliatu ohi den irizpidea ezkontzetako agirietako ezkonlagunen siñaduretan oinarritzen da : honenbestetarik zenbatek izenpetzen duten ikusiz, estatistikak egiten dira eta horren arabera izartzen da idatziari buruzko gaitasuna. Irizpide horri kritikak egin zaizkio, baina besterik ez delarik, zerbaiz ideaia ematen du gauzak nolatsu ziratzekeen. Are gehiago joan den mendean eginikako inkestetan balia berretsi dute berrikitanago egin azterketek (ik. bereziki Fleury & Valmary 1957 : 71-92), halako gisaz non historialariekin baitiote izenpetzeek ongi erakusten dutela alfabetatze osoaren heina<sup>7</sup>.

Lapurdiren kasuan (Baiona kontuan ez harturik<sup>8</sup>) ezagutzen ditugun ikerketen arabera badirudi 18. mendearren hondar partean, Luis XVIaren erregearen denboran, espes lagunetan laurdenek, herenek premuen artean, bazekitela izenpetzen (Lafourcade 1978 : 514). J. Pontet-Fourmiguék bere tesian (1990 : 537) Lapurdiko, Donibane Garaziko eta Donapaleuko aipatzen dituenak itxura berekoak dira, nahiz agerian ematen duen alde handiak izan zitezkeela herri batetik bestera, eta herri batean gizarte taldeen arabera<sup>9</sup>. Historialariek azpimarratu dute toki anitzetan bi aldakik zutela eraginik handiena alfabetatzeko mailan : hiri izateak (eta orokorkiago, bas-herrietan, etxeak elkarri hurbil jarriak edo bilduak izateak, ik. Muchenbled (1990 : 139), eta sexuak, anitez apalagoa baita emazteen artean alfabetatuaren portzentaia, hirietarik kanpo oroz gainetik.

Ikerketa lanek (ik. bereziki Butel & Mandon 1977, eta Poussou 1977) erakus-tera ematen dute aitzinamendu handia zutela Frantziako hegoaldeko herrialdeen artean, Pirinio Apaletako gizonezkoek alfabetatzeko kontuetan garai haietan. Ordea, ez gaitezke horietan geldi euskal probintzietan gauzak nola ziren jakiteko, zeren departamenduauren barnean, alde handia baitzen Euskal Herriko eta Biarnoko egoeren artean, bereziki, kasu honetan komeni den bezala, Baiona aparte uzten bada.

Halere, gogoan izanik izkirioak ariketa gisa dituen berezitasunak eta ororen eskoletako mailakatzea, pentsa dezakegu irakurtzeko gaitasuna siñadurak zenbatuz lortzen diren portzentaiekin adierazten duten baino doi bat handiagoa zela. Alabaina, garai haietan elizaren irakaspenearen bidez egiten den eskolatzeak irakurketa baino urrunago joatea ez du eskatzen jende gehienekin kasuan : *Celle-ci [siñatzeko gaitasuna] représente un stade intermédiaire entre les niveaux de la lecture et de l'écriture ; les générations passées par l'école primaire aquitaine comme par l'école primaire bretonne au XVIII<sup>e</sup> siècle sont dans leur majorité des générations de lisants qui ne se servent pas de l'écrit* diote Butel eta Mantonek (1977 : 29)<sup>10</sup>. Frantziako kultura historia ikertu duten bi autorek (Croix et Quiénart 1998 : 333)<sup>11</sup> ber gisan diote : *celle-ci [erlijio irakaskintza] inspire une alphabétisation pratiquement limitée à la lecture, qui s'affirmara davantage au XVIII<sup>e</sup> siècle, lorsque les effets de la Réforme catholique se seront fait complètement sentir.* Alabaina, Furet eta Ozoufek (1977 : 200) diotenean bezala, irakurketa eta idazketaren artean egiten zen diferentzia garai haietan erlijio irakaskintzak esplikatzen du oroz gainetik, pedagogia kontuek edo ikasketen kostuak baino gehiago : *le fossé entre le sacré et le profane est à l'origine du cloisonnement des deux savoirs.*

#### **4. Ororen eskolen zabalkundea.**

Noiz non egin ziren ororen eskolak ? Zuberoan, Belapeyreko dioenaz, 17. mendearren bukaeran guti zabalduak ziren ororen eskolak<sup>12</sup>. Honela dio 1693ko maiatzaren 27ko ordenantzak : *Néammoins, par une négligence criminelle, la pluspart des Curés dudit païs obmettent toujours de répandre ces consolations salutaires à leurs peuples, parce qu'ils n'ont jamais eu le soin de faire établir des Maîtres d'école dans leurs paroisses.*

Lapurdiko eta Baxenabarreko herrietan ere izan ziren ororen eskolak, segurenez ere hiri handienetan bederen lehenagotik hasiak. Egia da aski berant argertzen direla lehen aipamen zuzenak. Adibidez, Donibane Lohizunen herriak ordaindu

errejenten lehenbiziko aipamena 1676ko dokumentu batean kausitzen da (Nogaret 1925 : 106)<sup>13</sup>. Erran gabe doa horrek ez duela erran nahi deusik ez zela izan aitzinetik, alde batetik aurreko garaietako dokumentazio zahar anitz galdu izan baita, eta bestetik errejent pribatuak baitziratzeen lehenago, ikasleek pagatua. Horren froga kausitzen dugu Materrek eta Axularrek ekartzen diguten leku-kotasunetan, biek baitiote bazirela 17. mendearen lehen partean Lapurdin euskara baizik ez zekiten irakurleak, letratu handiak ez zirenak (erran nahi baitu latin guti zekitenak). Garai haietako bazter hauetako historia guztiz landugabea dugularik, are berantagokoak ditugu (18. mendearen hastapenekoak) Lapurdiko eta Baxenabarreko herrietan ororen eskolez egiten diren lehen aipamen ezagunak, apezpikuen bisiten ondotik egiten ziren erreportetan kausitzen direnak. Haristoyk (1890-91) bisita haietaz egin bilduma ikusiz, erran dezakegu 1703an eskolak bazirela Behorlegi eta Donostiri bezalako herri tiketan, eta, 1737an<sup>14</sup>, berriz, Angelun, Miarrizen (bi errejent bederen), Bidarten (errejent bat eta bi errejent-sa), Arruntzan, Uztaritzen, Mugerren, Urketan, Bastidan, Aiherran, Makean, Itsasun, Kanbon<sup>15</sup>, Larresorron, Senperen<sup>16</sup>, Urruñan, Hendaian, Zuberoan, Donibane Lohizunen, Ziburun, Hiriburun.

Iduri du beraz aski zabaldua zirela ororen eskolak Euskal Herrian. Alfabetatze maila aski apala agertzen bada (Biarnori eta Baionari konparatuz<sup>17</sup>), eskola horien ezaugarriengatik dateke. Dokumentazioaren eskasiaren gatik ezaugarri horien segurki ematea neke bada ere, uste dut zenbait puntu aitzina ditzakegungo : i) katiximaren irakasteari lotuak ziren oroz gainetik eta horregatik irakurketa zen haurrei eskaini nahi zien oinarrizko irakaskintza (haur askorentzat bakarra, bereziki labortari familietakoentzat kasuan) ; ii) katixima euskaraz egina izanik, irakurketaren oinarriak ere hain segur euskaraz finkatzen ziren ; iii) irakasleen maila hala-holakoa zen, lanbide aski gaizki ordaindua baitzatekeen ; iv) mutikoentzako eskola zen gehiago neskentzakoa baino, hirietarik kanpo bereziki<sup>18</sup>.

Eskola horiek ez ziren jakintza eskolak, eta gutik ikasten bide zuten haietan jakintzako bideak irekitzen zuten frantsesa eta are gutiago latina. Horrela ulertu behar dira, ene ustez, Garatek gutun batzueta egin zenbait ohar : *les pauvres basques sont pauvres à un tel point qu'il n'y a presque pas de famille où l'on puisse faire un prêtre, un avocat, un médecin parce que le pays n'a aucune école où l'on enseigne autre chose qu'à lire et à écrire* (Duhart 1994 : 166)<sup>19</sup>

## **5. Instrukzionea gazteriarentzat.**

Ororen eskoletako irakaskintza nahi izan dut piska bat gogoratu hemen, zeren uste baitut beharrezko dela aitzineko kontestu hori gogoan izatea, *Instrukzionea gazteriarentzat* delako liburuxka duela berrehun bat urte nola agertu zen konprenitzeko. Ez baita hutsetik sortu den zerbait.

Iraultza denboran desegin ziren elizaren egiturekin zer-ikusi handia izan zuten ororen eskolak, eta toki anitzetan, herri eta hiri tiketan bereziki, gibelamendu zerbait izan bide zen eskola herrikoi恒 sistemana<sup>20</sup>. Gauzak baretzen hasi zirenean, piskanaka abiatu ziren eskola berriak, eta hain zuzen garai hartan egin zen itxura guzien arabera ere gure liburuxka, Vinsonek bere bibliografian (1891 : § 143) aipatu zuena. Hona zer zioen<sup>21</sup> :

*Instructionea gazteriarentçat. Adrien Emperadorearen galdeac sei urhetaco haur batí.  
Signé : Beaumont.*

*Pet. In-8 – 24 p.  
S. t. l. ni d. (vers 1795)*

Argitaria-urterik eta lekurik gabe eman gabe egin zen, beraz, 24 orrialdeko liburuxka hori, Iraultzaren garaian, 1795aren inguruan, Vinsonen orduko ustean. Esplikaziorik ematen ez badu ere urtearen finkatzeko, argi da Vinsonek ikusi zuela lan horretan Thermidorreko gertakarien ondoko urteetan egin lan bat.

Handik zenbait urteren buruan, 1898an argitara eman zuen gehigarrian zuzen-keta bat egin zuen Vinsonek horretaz, liburuxka menturaz 1801 edo 1802an argitaratu zela aditzera emanez :

*Il est dit dans cette brochure que le monde a été créé il y a 6804 ans ; c'est évidemment une faute d'impression pour 5804, car il y est dit aussi que J.-C. vécut 4 000 ans après la création du monde. La brochure serait donc de 1804. Cette hypothèse est confirmée par un passage où la découverte d'Uranus (1781) est indiquée comme datant déjà de 25 ou 30 ans. Il est vraisemblable que cette plaquette a été écrite entre le Concordat (1801) et l'arrivée à Bayonne de l'évêque J.-J. Loison, le 4 nivose an XI (25 décembre 1802).*

Gehigarrian, beraz, 1801edo 1802an finkatu zuen Vinsonek liburuxkaren idazketa, Bonaparte Lehen Konsulatuak Aita santuarekin Konkordatua egin ondotik, baina Konkordatuaren ondoko lehen apezpiakua etorri aurretik.

Ez da dudarik liburuxka Imperioa jarri baino lehenago egin zela, aditzera ematen baita harten Frantzia errepublika dela [21. o]. Halere Aita santua batere ez baita aipatzen delako liburuan, aditzera ematen baita harten Frantzian errepublika dela [21] konkordatua egin baino lehenago ere idatzi zela instrukzioen hori, 1795-1800 urteetan, beraz.

Liburuxkak 24 orrialde ditu, eta bi testu dauzka. Lehen zatiari dagokion izenburua Vinsonek ekartzen duena da : *Adrien Emperadorearen galdeac sei urthetaco haur batí* (1-13 o.) ; bigarren zatiak, haistik, beste izenburu bat du : *Haurren instructionea galde eta ihardesteca, edo haur gazte batec, necessario dituen eca-gutcen moldea* (13-24 o.). Ez dira idazlan bakarreko bi parte, baina bi testu desberdin, elkarren osagarri ere ez direnak, baitira bigarrenenan lehenbizikoan agertzen diren ikasgaiak, errepikatzen direnak.

Izenburu horiek erakustera ematen duten bezala, liburuxka katiximen molderiarri darraio, erran nahi baitu galde-ihardespenez osatua dela burutik buru. Garbiki agertzen da, bestalde, maila behereko irakaskintzari dagozkiola bi testuak, nahiz bigarrena lehena baino eskolarakoago den.

Lehen zatiko galdeak ez dagozkie dotrinari. Hala ere, erlijio historietako zenbait kontu aipu dituzte : munduaren kreatzea, uholdea, bibliako pertsonaia batzuk (Adam eta Eba, Noe, Jose, Abraham, Isaías,...). Oraingo ikusmoldean erran dai-teke erlijio kulturaz ari dela parte hau. Erlijio testuetan finkatua izanik, maila berekoak balira bezala ematen dira harten erlijioari berari datxikion irakaspena eta natura zientziari buruzkoa. Adibide gisa eman daiteke, beste anitzen artean, bi zeruen artean egiten den diferentzia [3. o.] :

*Zein dire munduaren pharteak ? Printzipalak dire, zerua, laur elementak, zeinak baitire sua, airea, lurra eta ura.*

*Zenbat zero dire ? Bia printzialak ; anpresa eta firmamenta.*

*Zer da zero anpresa ? Hura da zero guzietarik gorena, hedatuena eta ederrena.*

*Zer da zero firmamenta deitzen dena ? Hura da klaritate dibinoaren argia, dohat-suen egoitza.*

Literatura herrikoietan maiz gertatzen den bezala, irudi hitzez argitzen dira ezjakin tasunaren eremuak, hala nola ikus daitekeen galde-ihardreste segida honetan [3. o] :

*Zerk dauka lurra ? Aireak.*

*Zerk dauka aírea ? Laur ebanjelistik.*

*Zerk dauzka laur ebanjelistak ? Su izpiritualak.*

18. mendeak zenbakien aldera erakutsi duen isuria aurkitzen da hemen ere bibliako kontuei aplikatua : Noeren adina arkua egiten hasi zenean, zenbat urte eman zuen egiteko, zenbat denbora egon zen urean arka, zer neurri zituen arkuak, etab...

Liburuxkaren bigarren galdekizuna, gaiaren aldetik, ez da lehenbizikoa bezalakoa. Lehenik, erlijio gai batzuk aurkeztuz ere hastean, hartaz kanpoko kontu batzuez ari da, mitologiako eta historia eta geografiako gaiak aipatzen dituelarik gehienik : zerua zer den, planetak zenbat eta zein diren, denboraren partikamena, kontinenteak, munduko obra handiak (Babilionako murruak, Rodosko estatuak, Alexandriako dorrea, Egiptoko piramideak, etab... Minosen labirintoarekin batean), Termopiletako bataila, errepublika eta monarkiaren definizioak, itsas gora-beherak, lurraren mugimendua eguzkiari buruz, ibaiak nola sortzen diren... Testua errepublikazalea da, baina errepublikazaletasun hori antzinateko eta bereziki Espartako kontuak aurkeztean agertzen da, iraultza garaiko nahasmenduak aipatzen ez direlarik [21-22] ; erregeen kontrako solasik ez da, batere.

Testuaren adierazpenak guztiz argiak dira eta egoki emanak. Adibidez, hona nola esplikatzen den euriaren moldatzea [17-18] :

*Nahi nuke Jakin nondik heldu den uria ? Itsaso, arribera eta bertze turraren gaineran diren ur guzietarik.*

*Trufatzen zira : nola igan daiteke zerura itsasoan eta arriberetan den ura ? Erranen derautzut : uria formatzen da batuetan arriberen gainean, ikhusten ditutzun lanhoez, erran baititeke khea dela. Bada, khea iduritizen zautzun gauza hura, da uraren pharterik mehena, zeina deitzen baita baphorea, eta zeina baita hainitz sarkarria ; bada, iguzkiaren berotasunak, tiratzen tu bethi uraren pharterik finenak, alxatzen dira airean, baphoretan, eta aireak atzikitzentu, hainitz ez denean ; bainan noizetare baita kantitate handi bat, aireak ez ditzake gehiago jasan, urak lehertzen du aírea, eta erortzen da uritan lurraren gainerat.*

Itzulpen edo menturaz moldaketa lana da, zeren bi parteetan ez baita beti segida handirik aurkitzen aipatzen diren gaien artean.

Mintzairak aski ona da, galde-erantzunen bizitasuna eskaintzen duena eta haurrek gogoz ikasteko egokia.

## 6. Testuaren argitalpen berria.

INSTRUCTIONEA, GAZTERIARENTÇAT.<sup>22</sup>

ADRIEN EMPERADOREAREN GALDEAC

SEI URTHETACO HAUR BATI

Sei urthe baicic etçuen haur hura ; deithua cen mundu guciaz, Emperadorearen ilobassoa ; handizki, errecomendatua cen Jerusalengo patriarka

bati. Haur hura erramarat ethorri cenean, interrogatua içan cen, dukez eta chi-valierez. Estonatu cituen guiac. Adriene, ceina orduan Erroman baitcen, era-khar araci çuen interrogatua içaitecotçat, bakotchaz irakurriac içaitea, mereci duten hainitz questioneren gainean.

*Adrien Emperadorea.*

G. Nola eguna içan da cerua ?

[2] I. Eguna içan balitz guiconen escuz, jadanic eroria içanen cen, eta sorthua içan balitz, aspaldion hila içanen cen.

G. Cer egun çuen Jaincoac lehenic ?

I. Arguia eta clartassuna dembora gucietan.

G. Nola adi daiteke trinitate Saindua dela Jainco bakhar bat, hirur presunetan erreguinatzen duena ?

I. Iguzkitic, ceintan aurkhituco baitituc hirur gauça ; hala-nola, içaitea, arguia, eta berotassuna ceinac ecin separatuac baitira, ecic bat ez-ciatekec içan bertcea gabe.

G. Jaincoa, dembora lucez egon cen munduaren creatzen ?

I. Beguia idec artea becembat, ecic mundua creatu çuen instant batez ; bainan sei egunic barnean, egun cituen, diren gauça guiac : hala-nola, igandean creatu cituen, aingueruac eta archanyeluac ; astelehenean *eguin çuen firmamenta, erran nahi da, iguzkia ilhargaia* (*:ilkargitura*) *eta içarrac* ; astehartean egun cituen lurra eta itsassoa, aincitac, ur eziac, chirripa eta ithurriac ; asteazkenean egun cituen chorri eta arrain suerte guiac ; ortcegunean egun cituen planetac, ortcelarean egun eta formatu cuen Adam, bere idurira ; larumbatean, errepausatu cen eta benedicatu cituen egun eta formatu guiac.

[3] G. Certaz Jaincoac composatu du lurra ?

I. Materia diferentez eta urez ; eta lui hunc baitu bederatzi mila lekoaren inguruna, itçulian, eta hirur mila loditassunean.

G. Jaincoa larumbatean errepausatu cenaz gueroz certaco guelditzen guira gu, lanetic, igandean, larumbatean lanean hari içan ondoan ?

I. Juduekin bestan betan ez aurkhitcea gatic ; eta ceren igandean phiztu baitzen J. Christo ; bascotic, çazpigarten [testuan : caz pigarren] igandean, mende-coste egunean, egorri baitcioen, izpiritu [testuan : izpititu] saindua bere Eliçari.

G. Cein dite munduaren pharteac ?

I. Printcipalac dire, cerua, laur elementac, ceinac baitire sua, airea, lurra eta ura.

G. Cembat ceru dire ?

I. Bia principalac ; ampirea eta firmamenta.

G. Cerda ceru ampirea ?

I. Hura da ceru gucietaric gorena, hedatuena eta ederrena.

G. Cerda ceru firmamenta deitzen dena ?

- I. Hura da claritate dibinoaren arguia, eta dohatsuen egoitça.
- G. Cerc dauka lurra ;
- I. Aireac.
- G. Cerc dauka airea [*testuan* : aireac] ?
- I. Laur evanyelistec.
- [4] G. Cerc dauzca [*testuan* : dauzea] laur evanyelistac ?
- I. Su izpiritualac.
- G. Cein da behinere uriric eguiten ez duen, eta behinere eguienen ez duen lekhua ?
- I. Gelboeco sorhoa, Egipto gucian, ceren lurra trempatua baita, nilaz.
- G. Cembat mihi dire munduan ?
- I. Badire hirur hogoi eta hamabi.
- G. Norc eman cioten icena, animale guciei ?
- I. Adamec.
- G. Cein da munduan den gauçaric mendrena ?
- I. Guiçonaren gorputça, arima campoan denean.
- G. Cein da munduan den gauçaric atinena eta segretena ?
- I. Guiçonaren pentsamendua.
- G. Mundu honetan bere guthicia eta borondatearen eguiten dutenac, urus dire ?
- I. Ez, ez dire urus ; baina urus dire, Jaincoac, mundu huntasun, bere borondatearen [*testuan* : bererberondatearen] eguitera utzten ez dituenac, eta nahigabez gaztigatcen dituenac.
- G. Cein da aberatsentçat [*testuan* : aberatsentcat] beçala, pobreentçat den gauçaric cruelena ?
- I. Herioa, ceintan, Jaincoari condu emaitera, Johan behar baita, gure bici onaz edo gaichtoaaz.
- G. Cein da, guiçona asse ez daitekeyen gauça ?
- I. Irabacia ! ecic guiçona, ceruco gloriaren irabazterea entseyatu behar bidean, ez da entseyatzen [5] aberatstassunen irabazterea baicic.
- G. Cein da gauça hoberena [*testuan* : boberena] edo gaichtoena ?
- I. Solassa.
- G. Norc eguiñ çuen lehenbicico Eliça ?
- I. Jondoni Pauloc.
- G. Cer adin çuen Noëc bere arkaren eguiten hassi cenean ?

- I. Bacituen bortz ehun urthe.
- G. Cembañ urthe eman çuen arkaren eguiten ?
- I. Ehun urthe.
- G. Cembañ egun egon cen arkha hura urean ?
- I. Berrogoy [*testuan* : Berroigoy] egun.
- G. Arkha harc cembañ çuen, lucean, largoan eta goran ?
- I. Bacituen hirur ehun besso lucean, berrehun eta laur hogoy, goran, eta berrogoy eta hamar, largoan.
- G. Cein lekhutan da orai arkha hura ?
- I. Armenian, mendi gora baten gainean, ceina deitua baita Archeteclin.
- G. Norc landatu çuen lehenbicico mahastia ?
- I. Noëc.
- G. Norc galdeguin çuen, egundaino nihorc galdeguin duen, dohainic handiena ?
- I. Joseph Arimathiacoac, ceinac galdeguin baitçuen J. Ch. gure jaunaren gorputça, gurutcean celaric, eta ecarri [*testuan* : eçarric] baitçuen thomban.
- [6] G. Certaco behar da barurtu, ortcilarean, bertce egunetan baino lehenago, eta ez da haraguiric jaten ?
- I. Çortci arraçoin printcipal gatic : lehena [*testuan* : lchena] ceren Jaincoac, egun hartan eguin baitçuen Adam : bigarrena ; ceren ortcilarean, bathayatu baitçuen Jondoni Juanic, J. Ch. gure jauna Jourdaingo artiberan, hirurgartena, ceren ortcilarean, hil baitçuen, davitec goliat digantea : ceren ortcilarean hartu baitçuen J. Christoc, haraguizco gorphutza, ama biryinaren sabelean ; bortzgarrena, ceren egun hartan berean bathayatua içen baitcen, Jondoni Eztebe, lehen martira : seigarrena, ceren ortcilarean, ebaki baitcioten burua, Jondoni Juani Baptistarri : zazpigarrena [*testuan* : gazpigarrena], ceren ortcilarean gurutceficatua içen baitcen J. Christo ; çortcigarrena, ceren ortcilarean, ethorrico baita goure jauna, Josaphateco sorhora, mundu guciaren juyatcera.
- G. Cein dire Jaincoari, agradagarrien caizcon gauçac ?
- I. Eguiazco penitencia, pacientcia, pobrecian, eta bekhatutic beiratcea.
- G. Cembañ seme-alaba içen cituen Adamec ?
- I. Hamar seme eta laur hogoy alaba, khondatu gabe Caïn, Abel eta Seth.
- G. Cein cen lehenbicico ohoina ?
- [7] I. Seth.
- G. Nor sartu cen lehenic parabissuan ?
- I. Ohoin ona.
- G. Nor cen bi aldiz hil cena ?

- I. Lazaro, behin pitztu çuen J. Christoc.
- G. Norc eguin içan du lehenbicico hiria ?
- I. Cain, Adamen lehen semeac.
- G. Cembañ galtzapen suertetan eror daiteke guionna ?
- I. Hirur suertetan : lehena, bere ontassunen galtçapenaz, bigarrena, bere ossassunaren galçapenaz, hirurgarrena, bere atimaren [testuan : arímenen] galtçapenaz.
- G. Nondic heldu da çuhurcia ?
- I. Jaincoaren beldurretic ; ecic çuhurra dena, bera gatzigatzen da.
- G. Certara Jaincoac obligatu ditu guion guiac ?
- I. Lanera, Jondoni Pauloc dio, hain [testuan : nain] errech dela guionarentcat lanean hartcea, nola choriantçat [testuan : chorierantçat] hegaldatcea.
- G. Certaric eguin içan ditu Jaincoac, guionna eta emaztea ?
- I. Guióna eguin içan da lurretic ; eta emaztea eguna içan cen guionaren saihets heçurretic, ceina athera baitcioen Jaincoac lo çagoelaric.
- G. Cembañ bici içan dira Adam eta Eva ?
- I. Bederatci ehun urthe.
- G. Cein da, Jaincoaren aitcinean, gutien [8] barkhatgarri den bekhatua ?
- I. Desesperacionea.
- G. Cein da guionec lurraren gainean duten eguitecoric premiazcoena ?
- I. Hura da, Jaincoaren eta J. Christoren eçagutcea eta bere buruen eçagutcea ; erran nahi da, cer diren eçagutcea, certaco bici diren, cer bilhacatu [testuan : bilhaçatu] behar diren bicitce hunen ondoan, eta cer eguin behar duten eguiazki urus içaiteco ; hitz batez, Jakin erreliyonea, eta bici haren arabera.
- G. Cein da Jaincoac, guionei eguin derayen lehen misericordia ?
- I. Heyer, salbatçaile baten hitz emaitza, ceina igurikia içan baita lurrean, bederen laut mila urtheren inguruna.
- G. Dembora lucea du, Jaincoac, cerua eta lurra creatu cituela ?
- I. Badu 6793, urtheren inguruna.
- G. Cein da Juduen lehen erreguea ?
- I. Saül.
- G. Cein cen, iguzkiaren gueldi-arazteco dohaina içan çuena ?
- I. Josué, Gabaonitarres seguitua cenean.
- G. Nola deitcenda, Abrahamec bere seme Isaac, sacrificatu nahi içan çueri mendi ?

I. Moria, Calvarioco mendiaren aldean, ceintan J. Christo gurutceficatuua içan baitcen, han-[9]dic cebait menderen buruan.

G. Segur guira badela Jainco bat ?

I. Bai : eguiat bat [testuan : qat] da hain clara, nun burua galdua behar baita, ukhatceco edo dudatceco ; ecic ez da burua galdua duenic baicic, Jaincoric ez dela divenic (ps. 13. vol. V.).

G. Cein dira J. Christoren Sortcea, aincinetic erran duten prophetac ?

I. Jacob, Daniel eta agea.

G. Cein dira, messiaz baino lehenago aguertu diren bertce propheta famatuenac ?

I. Elia eta Isaías.

G. Cer egindu Eliac erremarkablenic ?

I. Laur urthez gueldi aracı içan ditu ceruco uriac ; hil araci laur ehun eta berrogi eta hamar aphez faltsu. Hacia içan da bele batez, guero aingeru batez, eta altchatua cerurat, urrezco carrossa batez.

G. Cer eguin du Isaäc erremarkablenic ?

I. Harc, erran içan du clarkienic, J. Christoren sortcea, bicitcea [testuan : bicetcea] eta heriotcea.

G. Cein familiitaric atheratu dire Juduac ?

I. Isaac eta Jacob, Abrahamen seme eta ilobassoetaric.

G. Cembañ urthe çuen munduac, hassia cela, J. Christo Maria Birginaren ganic sorthu cenean ?

I. Laur mila urtheren inguruna.

[10] G. Cein içan cen Jaincoaren contra eguina içan cen lehen bekhatua ?

I. Urguilua.

Cein içan cen avariciosic handiena eta icigarriena ?

I. Judas traidorea, ceren saldu baitçuen bere naussi dibinoa hogoi eta hamar diru pecetan [testuan : ppecetan], ceinec eguiten baititu gure monedaco hamar luissen heina.

G. Cein egunez, hitzman cioten traidore harc Juduei, bere messiassen largatcea ?

I. Asteazken [testuan : Azteazten] saindu goicean.

G. Cein da egundaino içan ez çuena, eman duena ?

I. Jondoni Juani, noiztare bathayatu baitçuen gure Jauna, Jourdaingo hegopian.

G. Cein da lekhua, iguzkiac arguitu duena, eta berriz behinere arguituco ezuena ?

I. Hura da Moïse, oinac idorric, passatu cen itsas gorrico lekhua, eta Pharaon, bere armada guciarekin itho cena.

G. Mundua hassiz guero, ez da içan egun bat ceintan ez baitçuen eguiten ez egun ez gau ?

I. Bai : hora cen J. Christo gurutceficatu cen eguna ; ecic hirur orenez içan cen Eclipsac, eguin çuen, ez egun içaitea, ilhunbeac hedatuac cirenaz [testuan : ecire-naz] gueroz lur gucian. Etcen gau ere, [11] iguzkia, urrun etçana içaitetic, bere curtsaren erditan cenaz gueroz ; eguerditic hirur orenetaco heinean, eguna aguer-tu cen.

G. Cein içan ciren, J. Christoc gurutceco arbolaren gainean, erran cituen lehen hitçac ?

I. Hauc ciren : *in manus tuas, Domine, comendo Spiritum meum.*

G. Cein içan cen, egundaiño nihorc jassan içan duen Guerlaric handiena eta odoltsuena ?

I. Juduen Guerla, Erromanoen contra, J. Christo hil cenetic, hogoy eta hemecortci urtheren buruan.

G. Cer içan cen guerla haren ondorioa ?

I. Josephen historioac, dakharke, gosetea hain handia içan cela, nun içan baitciren, Jerusalemen bere haurreac Jan cituzten amac.

G. Cembaç içan cen hil eta presuneren nombrea ?

I. Hilac içan ciren berrehun eta hogoi eta hamaçazpi mila baino guehiago, eta laur ehun eta hamaçazpi mila pressuner [testuan : pressunez].

G. Norc ereman çuen bictoria ?

I. Erromanoec ; eta gueroztic Juduac barrayatuac dire lur gucian, erregueric batere gabe.

G. Cembaç denboraz içan da persecutatua Eliça Catholicoa ?

Hirur ehun urtheren ingurunaz, pagano Em-[12]perador difentez.

G. Cein içan cen lehenbicico persecutatu içan çuena ?

I. Neron, J. Christo hil cenetic hogoi eta hamar urtheren buruan.

G. Badakiçu persecutatçaileric ikharagarrienen nombrea ?

I. Bai. Çortci dira eta guciac, miserableki hil dira.

G. Cein içan çiren persecutioneric lucenac eta cruelenac ?

I. Diocletien eta Maximienenac ; ecic iraun çuten berrogoi eta hamar urthez, guelditu gabe.

G. Cein içan cen persecuzione hec akhabaraci eta Eliçari bakhea [testuan : bakinea] içan aracı cioena ?

I. Constantin Emperadorea Santa Helenaren semea, ceina bathayatua içan baitcen 312an.

G. Cembat bathayo suerte dira ?

I. Hirur ; urezcoa, odolezcoa eta Guthiciazcoa.

G. Cein içan cen lehenbicico heresia ?

I. Lehenbicicoa, Apostoluen beren demboran, pitzua içan cen Simon magienaz ; malurus hora Jaincotçat nahi cen passatu, cioelaric dirutan eros çaitekela, Ispiritu Sainduaren emaiteco botherea ; bainan lurrerat egotzia içan cen Jondoni Petriz erroman.

[13] G. Nor dira munduaren akhabantçan baicic hilen ez direnac ?

Enoeh eta Elia, ceinac, eramanac içan baitira biciric, lurreco parabissurat, eta ethorrico baitira munduaren akhabantçan antechristen attakatcera.

**HAURREN INSTRUCTIONEÀ  
GALDE ETA IHARDESTECA (*testuan : IHARDESTEGA*),  
EDO  
HAUR GAZTE BATEC,  
NECESSARIO DITUEN EÇAGUTCEN MOLDEA**

G. Norc eguin ditu, cerua, lurra eta içaitea duten gauça guiac ?

I. İçaita eternal harc, ceina, bethi danic içan baita, eta bethi içanen baita, eta ceina deitcen baitugu Jaincoa.

G. Adoratu behar dugu, eta eskherrac bihurtu behar diotçagu, hoin bertce miracuiluren eguale guisa ?

I. Bai,/guiçon guciec çor diote eçagutçazco tributu bat, instant guciez eguiten deraizcun ongui eguinen aldera.

[14] Nola deitcen dute Jaincoaren adoratceco manera ?

I. Erreligionezco adoracionea.

G. Cer da guiçona ?

I. Hura da creatura arraçoinable bat, gorputz eta arima batez composatua.

G. Cer deitcen duçu gorphutz bat ?

I. Hunki detçakeguken gauça guiac, gorphutza formatua da, laur principioz, ceinac deithuac baitire elementuac.

G. Cembat centsu tuzte, guiçonac eta animalec ?

I. Baituze bortz ceinac baitire, bista, ussaina, aditcea, gostua eta unkitcea.

G. Cer da cerua ?

I. Hura da munduaren pharteric gorena, eta bertce hainitz phartetan çatitcen dena.

G. Cer da firmamenta ?

I. Hura da guc ikhusten dugun ceruaren phartea, ceinetan baitire arguiac.

G. Cer deitcen duçu arguiac ?

I. İçarra (*sic*) eta planetac.

G. Cembat içar dire ?

I. Ez daitezke konda.

G. Cembat planeta dire ?

I. Çazpi : cein baitira, iguzkia, ilhargua, mars, mercura, jupiter, venus eta saturna ; bada bertce çortci garren bat, herschell deithua, orai duela hogoi eta bortz edo hamar urthe deskubritu due-[15]naren icenetic.

G. Cein da planetetan den handiena ?

I. Iguskia.

G. Certaco cerbitçatcen da iguzkia ?

I. Lurraren arguitceco, belhar eta animalen sorharazteco, heyen bici eta handi arrazteco (*sic*) munduaren hastetic, iguzkiac arguitcen tu guiçonac, eta preciski behar den beçala eçaría da, guretçat abantailos içaiteco ; gorago balitz, lurra ecin bero leçake ; beherago balitz, erre leçake, bai gu ere.

G. Certaco cerbitçatcen da oraino iguzkia ?

I. Orenez, egunez, artez, hilabethez, sassoinez, urthez eta mendez, guiçonen biciaren erteglatceco

G. Cer da orena ?

I. Hura da demboraren iraupen bat, ceina partitcen baita bietara oren erdia-ren eguiteco, edo lauretara, oren laurdenaren eguiteco edo hirurhogoi phartetara, ceinac deitcen baitira minutac.

G. Cembat oren tu egunac ?

I. Hogoi eta laur, juntatuz gabazcoac.

G. Cembat egun dire urthean ?

I. Hirur ehun eta hirur hogoi eta bortz.

G. Cembat hilabethe dire ?

I. Hamabi.

G. Eta aste urthean ?

I. Berrogoi eta hamabi.

G. Cer da menda ?

I. Hura da ehun urthetaco dembora.

G. Cembat sassoin dire urthean ?

[16] I. Laur : hala-nola, primadera, uda, udaskena, eta negua.

G. Norc landatu çuen [*testuan* : laudatu] lehenbicico [*testuan* : leheubicico] mahastia ?

I. Noëc.

G. Noëc içan çuen haurric ?

I. İçan çuen hainitz ; bainan lehen bicico liburua ezda mintço hirurez baicic, ceinac baitira printcipalki, Sem, Cham eta Japhet.

G. Erran diçadaçu, Noären cein haur içan cen gure aita ?

I. Japhet.

G. Noären haurrac bethi elkharrekin egonciren ?

I. Ez, bereci ciren, Babelen dorrea, ecin akhabatu çutenean ; eta bacotchac bere aldetic pentsatu çuen Joatea, chain:n umeac, Joan ciren orienteco alderat Japhatenac, occidentecorat, et Semenac guelditu ciren, assar deitcen cen lekhuan.

G. Erran diçadaçu cein aldetan dira Europa, eta munduaren bertce pharteac ?

I. Europa, nortean da, Afrika eguerdian, Asia, orientean, eta Amerika occidenteant.

G. Aditu dut badela lekhu bat, ceintan iguzkia gure ganic hurbilago baita, eta ceintan eguiten baitu berobat ecin Jassanezcoa ?

I. African eta Asiaren eguerdico phartean da, bainan bero hura ez da ecin Jassanezcoa ; direnaz [17] gueroz lekhu hartan yendeac, hura yassaiten dutenac : hala African eta Amerikan sortcen direnac, bero eguiten duen lekhuetan, ongi ekhartcen dire, bainan campotarrac eritcen dire.

G. Aditu dut oraino badela lekhu bat, behinere uríric eguiten ez duena, edo arraroki ?

I. Bai, Egiptoan da : hargatic hainitz bero eguiten du. Jaincoac ceinac ez bait-çuen nahi uritic egunin ceçan, eman içan du arribera handi bat, nil deitcen dena ; urthe guciez atheratcen da bere ohetic, eta estaltcen tu Egiptoco lur guiac hainitz hilabetz ; eta miragarri dena nilgo urec, berekin eremaiten dute [testuan : duten] lurren gainera, ichtil bat, ceinac eçartcen baititu, gauça ecclenten ekhartceco [testuan : echartceco] heinetan.

G. Nahi nuke Jakin nondic heldu den uria ?

I. Itsasso, arribera eta bertce lurraren gainean diren ur guciataric.

G. Trufatcen cira : nola igan daiteke cerura itsassoan eta arribetan den ura ?

<[I]> Erranen derautçut : uria formatcen da batçuetan arriberen gainean, ikhusten ditutçun lanhoez, erran baititeke khea dela. Bada, khea iduritcen çautçun gauça hura, da uraren pharteric mehena, ceina deitcen baita Baphorea, eta ceina baita hainitz sarkarria ; bada, iguzkiaren [testuan : iguzkiarren] berotassunac, tiratcen tu bethi uraren pharteric finenac, [18] alchatcen dira airean, baphoretan, eta aireac atchikitcen tu, hainitz ez denean ; bainan noizetare baita quantitate handi bat, aireac ez ditçake guehiago Jassan, urac lehertcen du airea, eta erortcen da uritan lurraren gainerat.

G. Erran diçadaçu, orai cembat miracilu diren munduan ?

<[I]> Ez daitezke konda : ecic inguratcen gaituzten gauça guiac miracilu dire, eta Jainco baten içaitea erakhusten deraukute ; bainan badire cazpi/guiçonen escuz eguinac.

G. Erran detçagutçu ?

I. Asian, Babiloniaco murruac eta Baratceac, Egiptoan, Alexandriaco dorrea, Mausoleren thomba, Rhodesco colossa, Ephesan, Dianaren templua, Cretaco irlan Minosseni labyrintha, eta Egiptoco piramideac.

G. Erran deçaguçu, cer ciren Babiloniaco murruac eta barratceac, miracuiluetaric bat ?

I. Babiloniaco murruec inguratcen cuten hiri hura, munduko Emperadoretasunice çaharrenaren capitala ; murru harc [testuan : narc] baçuen luçean, berrogoi eta hamar milla, eta berrehun pia goran : eta largoa cen, nun sei carrossa passa baitcitazkeyen, bat-bertcea deinatu gabe. Babiloniaco baratceac içan dire obrabat, haren murruac beçain miragarría.

[19] Explica dieçaguçu cer cen Alexandriaco dorrea eta norc eguin araci çuen ?

I. İçan cen erregue bat, Ptolomeë deitcen cena, ceinac eguin araci baiçuen marbolezco dorre bat, hain ederra, nun çazpi miracuiluetaric bat deitu baitçuten : eşartcen çuten, dorre haren gainean argui bat, Pharos deitu çutena, untcién abertitceco ; eta gueroztic, Pharos deithu tuzte, gavaz itsassoan direnenççar, arguia eşartcen tuzten lekhu altchatuac.

G. Explica diçadaçu cer cen Mauseleren thomba ?

I. Bacen Caria, Asia ttipieneco erresuma tipi batetaco, erreguina bat, arthemisa deitcen cena, bere Senhar Mausolea hainits maite çuena. Mausolea hil cen, eta erreguinac egün araci cioen thomba eder bat : eta gueroztic, Mausoleac dei-thu thuzte hilen orhoitçapenaren [testuan : orthoitçapenaren] ohoratceco eguiten diren obrac. Bainan [testuan : Bainean], nahiz arthemisac egün araci çuen thomba, ederra cen, etçuen asqui aurkhitu bere senharraren hautsen errecibitceco : nahastekatcen ciutuen egun guciez, bere çopa eta arnoarekin : eta hola arras iretsi ciutuen.

G. Erraguçu cer cen Rhodesco colossa ?

I. Rhodesco colossa **cen** metalezco potret bat, guiçon, handitassun icigarri batetaco, baten figura çuena. Rhodesco [testuan : Rhodisco] hirico portuaren sartcean [20] cen, icen hortaco irlan ; hain gora cen, eta haren [testuan : karen] çangoac, harroca, elkhar ganic hain urrun ciren gainean phausatuac, nun untciac bela bethean, passatcen baitciren, çangoen artetic : aurtikhia içan cen lur ikhara batez.

G. Erradaçu cerc eguinazaten duen lur ikhara ?

I. Lurpeco su handi batçuc,edo lurrean cerratuac diten haice batçuc, ceinac enfort eguiten baitute atheratceco, eta batcuetan, bide bat idekitcen baitute, atheratcen baitira eta hedatcen.

G. Aditu dut badirela lekhu batçu, eta particularki, Europan, ceintan aurkhi tu baitira, su egotzen duten mendi handi batçu : nola deitcen tuzte hec ?

I. Deitcen tuzte volcanac.

G. Nola deitcen tuzte volcan hec diren lekhuaç ?

I. Bada bat Italian, Naples deitcen den hiri baten aldean ; vesuva, deitcen den mendi handi baten gainean da : bada bertce bat Sicilaco irlan etna deitcen den mendi baten gainean ; eta bertce bat, Irlandaco irlan [*testuan* : irlant], heclaco mendiaren gainean.

G. Bihur gaiten çazpi miraculuetarat ; cer cen Dianaren temploa ?

I. Dianaren temploa cen, Ephesaco hirian asiaco heguitan, Diana Jaincossari consecratua içan cen, Edificio eder hora ; Herostrate astrugaitçac, istorioan famos errendatcea gatic, erre çuen.

[21] G. Erradaçu cer cen Minossen labyrintha ?

I. Hura cen etche bat, halaco guisaz eguna nun han sartuz gueroz, ez bait-caitakeyen guehiago athera, ez bere bidea aurki ; ecic bacen, mila itçul, inguru : Dedalec egün çuen labyrintha hora, eta cen Cretaco irlan.

G. Erraguçu cer ciren Egiptoco Pyramideac ?

I. Egiptoco pyramideac ciren obra famatu batçu, laur mila urthe baino guehiago duela eguinac, ceinac agueri [*testuan* : agueric] baitira oraino, Caira handieren aldean ; Egiptoco Erregueen ehortz lekhutçat cerbitçatcen ciren, hogoi urthe eman çuten handienaren eguiten ; eta emplegatu cituzten hirur ehun eta hirur hogoi eta sei mila languile, diote ez cela deus gosta, languilen Janhariaren despendioentçat baicic, ceinac igan baitciren hemecortci ehun talentutara, ceinec eguiten baitute laur ehun mila libera sterlinken inguruna.

G. Erradaçu orai hea, Francia bethi errepublica içan cenetz ?

I. Ez, Erregueës gobernatura içan cen.

G. Cer da Errepublika bat ?

I. Errepublika bat da, estatu bat, hainitz presunaz gobernatura ; ecic, estatu batetan, ez denean presuna choil bat baicic gobernacen duenic, estatu hora deitcen dute, monarchia.

G. Franciac, cembat erregue içan çituen ?

[22] I. Hirur hogoi eta bortz, monarchia [*testuan* : manarchia] establituz gueroz.

G. Cein içan cen Francessen lehen erreguea ?

I. Pharamond.

G. Erradaçu errepublika çaharren nombrea eta non ciren ?

I. İçan ciren laur : Athena, Sparta, deithua orobat Lacedemonia ; hauc biac Grecian ciren : Errroma Italian ; eta Carthage African.

G. Cein içan ciren errepublika horietaco legue-emaileac ?

I. Solon Athenaco, Licurga Spartaco eta Brutus Erromaco.

G. Ez ciren hirur ehun Sparciatar chahutu hain glorioski Thermopiletaco pas-sayan ?

I. Bai, Leonidassen guidaren azpian, Xercés Persaco erregueren armada handien contra. Erraten diote armada hain handia cela, nun iguzkia itçalia içanen

baitcen, heyen fletchen ussutassunaz : hanbathobe, ihardetsi çuen Leonidassec ; itçalean batailatuko guira. Thermopiletara cirenean, Sparciatarrac guducatcen dira, lehoinac beçala, hamar aldiz handiago cen armada baten contra ; nombreaz lehertuac, chahutcen dira, bat choilki escapatu gabe : bainan curayezco exemplu horrec, salbatu çuen Grecia, hormaraciric ikharaz Xercés, Beroaraciric errepubli-canoen Cu-[23]rayea, eta hauyer elkhargana biltceco dembora emanic.

G. Erradaçu cer den passaya bat ?

I. Passaya bat da itsasso batetic bertce bateraco bidea.

G. Erradaçu cer diferentzia den, itsasso arribera eta ainciren artean :

I. Itsasso bat da ur kantitate handi bat bere ohetic atheratcen ez dena, eta kur-ritcen ez duena arriberec beçala.

G. Aditu dut bizkitartean, itsassoa, bere ohetic edo lekhutic atheratcen cela, explica daçu hori ?

I. Itsassoa, egunean bietan atheratcen da bere ohetic, eta han sartcen da : har-rec ez du behinere faltatcen. Badakite ere justuki cer orenez : eta hori deitcen da itsassoaren gora behera.

G. Norc atherarazten du itsassoa bere ohetic ?

I. Ilharguiac, ceinac tinkatcen baitu airea : aire harc tinkatcen du bere aldian itsassoa, eta atherarazten du alde guciataric.

G. Bainan, ilharguiac nola tinka deçake, ez da argui handi bat baicic ?

I. Trompatcen cira ; ilhargua, gurea beçala lur bat da, iguzkiaren arrayoac, errebibitcen ditu ; eta harc iduriarazten dautçu argui handi bat beçala. Bainan erranen dautçut, gugaren [sic : guhauren ?] lurra, [24] airean dela, eta bethi itçultcen dela : horra cerc emaiten daizcun eguna eta gava. Lurrac, hogoi eta laur oren emaiten du itçultcen ; noizetare erakhartcen baikitu, iguzkiari bis-à-bis, eguna dugu eta noizetare erakhartcen baikitu bertce alderat, gava, dugu.

G. Uste nuen iguzkia itsassoan etçaten cela ?

I. Iguzkiac behi arguitcen du : etçaten da gureçat ; erran-nahi-da, ikhustetic guelditcen guirela : Bainan dembora berean, Jaikitcen da Amerikako populous-çat ; erran nahi da, bere aldian haren ikhusten hasten direla : Bada, çaharrec etçuten America eçagutcen, etçakiten lurra biribila dela, eta inguruna gucian habitatua dela.

G. Erradaçu nondic atheratcen diren arriberac ?

I. Ordinariozki mendietaric atheratcen dira arribera badoha bethi, bertce arri-bera bat aurki arte ceintan galtcen baita : bainan, ez badu, bere bidean, aukhitten, arriberaric eta Joaten bada itsassoraino, orduan deitcen dute fluvioa. Fluvioa da arribera handi bat, ceinac eremaiten baitu ordinariozki, bere içena itsassorai-no. Aincira da itsasso ttipi bat beçala, ecic hango urac ez du kurritcen.

### Notes

1. Sérurier-ek (1874) eta Soulicek (1880) diotenaz, eskolak edo errejentak 1385an jadanik aipatua dira Biarnon : Oloroen, Nabarrenxoken, Lacq-en, Coarraze-n. Halaber, errejent bat bazein 1464an herri hauetan : Feas-en, Gan-en, Laruns-en, Pauen.

2. Baionan 1498an Johan de Langueirori diruz saritztua zitzaion *la pene et tribailh que a agut en l'an passat per endoctrinar los enfans de la dite ciutat* ; ik. Soulice (1880 : 02). 16. mendearen bigarren partean baziren gisa horretako eskola herrikoiak, kartierka antolatuak, eta, protestantismoa zela-eta, hirirarrek bazuten haurrak haitetara igortzeko obligazioa ; ik. Soulice (1880), Hourmat 1986 (227-228). Baionako kolegioa, maila goragoko eskolatzea eskaintzen zuena, 1598an ireki zen.

3. 1698an Erregearen adierazpen batek errejenten egoera segurtatu nahi izan zuen, herriei gutieneko hilabeterasaria (150 liberakoa mutiko eskoletako errejententzat, 100 liberakoa neska eskoletakoentzat) emateko obligazioa sortuz. Halere herriean beretan gauzak ez ziren orotan berdin joan ; ik. Butel & Mandon (1977 : 25-26).

4. Ez dakigu euskal herrialdeetan Biarnon bezalako mugimendurik izan ote zen 16. mendea baino lehenago. Belapeyreko ematen dituen lehenbiziko erreferentzia juridikoak 17. mendearen hastapenekoak dira : *rien ne peut contribuer d'avantage à la conservation de la pureté de notre religion, et à la réformation des mœurs, que l'établissement des petites écoles sous la sage conduite des bons régens ; c'est pourquoi l'Assemblée générale de Melun a ordonné au titre 38 de Ludi Magistris, conformément au Concile de Latran, qu'il y sera pourvu incessamment, et par l'édit de 1606, art. 14, les maîtres d'école des villes ou villages doivent être approuvés par les curés des paroisses, enfin qu'il a été prescrit que les supérieurs ecclésiastiques pourvoient aux plaintes desdits régens.*

5. Baionakoari dagokionez zeiharkako informazioa baizik ez dut atxeman literaturan, baina katiximen argitalpenak berak aski klarki mintzo dira. Halaber, Zuberoa barnean zeukan Oloroeko diosesari doakionaz, Belapeyeren lekukotasuna dugu, bai eta bestalde 18. mendeko hango apezpikuak izan zuten jarrera ezin argiagora ere ; ik. Castagnet 1997. Akizeko diosesa (Baxenabarren Oztibarre eta Amikuzeko eskuadak zeuzkana) gelditzen da dudazkoa. Ez da hango euskarazko dotrina berezirik, eta ez dakigu beraz zein katixima erabiltzen zuten. Halere, badakigu 18. mendearen erdian hango apezpikuak oraino galdegiten ziela apaizei tokiko mintzairak erabiltzeko irakaskintzan. Auzi bat izan baitzen horretaz Capbretongo herri gizonekin (Baionan bezala katixima frantsesez egin zedin nahi baitzuten), gogor egin zien apezpikuak, erranez : *Les instructions, les cathéchismes (sic) que font les pasteurs et les régents ne se firent jamais pour apprendre une langue, mais pour faire comprendre et retenir la religion, ce qui ne peut et ne doit se faire que dans la langue que les peuples entendent et parlent eux-mêmes.* (Sérurier, 1874). Diosesako kaitxima frantsesez egina zen, baina halere elizagizonei eta errejentei zegokien itzultzea : *les curés, vicaires et régents doivent se rendre et l'expliquer en langue vulgaire, sans quoy les peuples ne comprennent rien dans leur religion* (idem).

6. Autore horiek erakusten dutenaz, ordainketa aldakorra izan zitekeen, alde batetik irakaskintzaren mailaren arabera, eta bestalde burasoen gizarte mailaren arabera ere. Irakaskintzari dagokionaz, aipatu mailakatze hirukoitzari beste maila batzuk eransten zitzaizkion batzuetan. Horrela, zenbaitetan abezedarioa eta irakurketa bereizten ziren, eta latina ikastea ere karioago izan zitekeen : *En 1670, [...] le régent de Rions reçoit 5 sols par mois des enfants qui sont à l'alphabet, 10 sols de ceux qui lisent, 15 sols de ceux qui lisent et écrivent, 10 sols de ceux qui lisent, écrivent et arithmétiquent, 30 sols de ceux qui apprennent le latin.* (Butel & Manton 1977 : 28).

7. Honela dio Poussouk (1977 : 294) Fleury & Valmaryren lana aipatuz : *En montrant l'étroite corrélation qui existe entre la signature au mariage et l'alphabétisation complète, ils ont levé la principale déficience qui, aux yeux de beaucoup d'historiens, restait attachée à l'enquête de Maggiolo.* Ondorio bera adierazten dute Furet & Sachs-ek (1974 : 714-737). L. Maggioloren inkestaren ondorioak *Statistique de l'enseignement primaire*, 2. lib., 1880, argitarra eman ziren.

8. Anitez goragoa zen baionesen alfabetatuen portzentaia, bereziki 18. mendearen hondarrean. 1777-1788 urteetan % 67,2 da siñatzen dakin esposlagunen portzentaia baionesen artean. Garai bertsuan Lapurdin zenbaki hauek ditugu :

Uztaritzen 1767-1789 urteetan % 37,3 gizonetan eta % 11,97 emazteetan ; Hazparnen 1771-1789 urteetan % 29,14 gizonetan eta % 9,54 emazteetan ; Ezpeletan 1777-1784 urteetan % 38,2 gizonetan eta % 4,41 emazteetan. Baxenabarren eta Zuberoan, portzentaia hobeak dira, hirietan bederen : Donibane Garazin 1777-1785 urteetan % 46,6 gizonetan eta % 33,3 emazteetan ; Donapaleun 1778-1792 urteetan % 48,2 gizonetan eta % 7,1 emazteetan ; (ik. Pontet-Fournigüe 1990 : 537). Zuberoan Mauleko datuak ematen

ditu Poussouk (1977 : 308) : 1776-1786 urteetako ezkontagirien arabera, % 43,8k bazeikiten siñatzen gizonetan, eta % 16,4k emaztetan. Donibane Lohizungo zenbaikiak ez ditu ematen Pontet-Fourniguék, baina beste bi autorek bai, doi bat desberdinak baitira bienak ekartzen ditut hona : Poussouk 1776-1786 urteetako % 37,8 ematen du gizonentzat eta % 27,5 emazteentzat. Darrobersek (1994 : 82), berriz, 1775-1791 urteetako % 42,4 gizonentzat % 38,9 emazteentzat. Ohargarri da Donibameren kasuan mende hastapeneko portzentzia berdintsu zirela gizonentzat : 1714-1737 urteetan % 43,3k izenpetzen dute gizonetan, eta % 22,1ek emazteetan. Aldaketa handia agertzen da aurreko mendeari konparatuz : 1687-1704 urteean % 12,2k siñatzen dute gizonetan, % 6,1ek emazteetan ; ik. Darrobers 1994 : 81-82.

9. Uztaritzeren kasua adierazgarria da. Hiriko jaunetan esposlagunetan gizon guziek badakite izenpetzen, eta emazteetan lauetarik hiruk, ofizialean hamarretarik seik gizonetan eta hamarretarik batek emazteetan; laborarietan %18k dakite gizonetan eta % 7k emazteetan ; ik. Pontet (1996).

10. Autore zenbaitek diote onespenik gabeko errejentek abezedarioa eta siñatzen erakusten zutela, eta ez irakurtzen : *Les clandestins se contentaient d'apprendre l'alphabet et surtout à signer ; leurs clients n'en demandaient pas davantage, la lecture leur paraissant hors d'atteinte* (Darrobers 1994 : 81). Pentsa daiteke ageriko eskoletan katixima zenaz gero garrantzizkoena, eta haren irakurketa, bestelako lehentasunak zirela hauetan.

11. Donibane Lohizunen errejenta izendatu zutenean 1676an, herriko buruzagiek galdegia zioten ikasleetan bereizkuntza bat egiteko *entre ceux qui ne seront pas aussi avancés dans l'écriture et l'arithmétique que les autres* (Nogaret 1925 : 106).

12. Pentsa daiteke, menturaz, higenauten ekarria, nolanahi ere 17. mendearen hondarrean arras ahuldua zatekeena, ez zuela kontuan hartzen Belapeyrekin.

13. Oraino berantago agertzen da lehen errejentsaren aipamena Doninane Lohizuneko paperetan : 1748an.

14. Kontuan har bedi zerrendak ez direla batere exhaustiboa. 1737ko erreportetan aipatzen diren kasu gehiengosak agertzen dira horko errejentak onetsiak izan ez zirelako. Batzuetan, halere, erraten da ez dela errejentik parropian ; adibidez, 1737an, Beskoitzen eta Zuraiden. Bainha horrelako kasuetan ere, badiarudi urte hartako edo orduko egoera adierazten dela, ez egoera iraunkorra.

15. Kanborentzat egiazki erraten da zenbat denbora hartan eskas zutela errejenta. 1747an, berriz, erraten da badela baina ez dela behar bezalakoa.

16. Haristoyerren errana ez da argi. Dio *ni confréries ni maître d'école approuvés*, iduri bailuke bazirera baina ez zirela onetsiak.

17. Landesei konparatuz, aitzitik, aurreratuago zen Euskal Herria, Akize eta Mont-de-Marsan, hango bi hiri handienak, kontuan hartzen ez badira behintzat (ik. Poussou 1977 : 309).

18. Halere, Euskal Herrian Biarriko tikiago zen sexuen arteko aldea kontu hauetan. Adibidez, ezkonlagunen siñaduretan Mauleko eta Nabarrenkoxeko datuak konparatzentzat badira 1776-1786 urteetan, ikusten dugu gizonetan Nabarrenkoxtarren portzentzia Mauletarrena baino kasik bi aldiz handiago zela (% 43,8 vs % 84,5), baina emazteetan igualtsu ziren (%16,4 vs % 16,9). Biarriko bizikiri aitzinatuak bizen gizonen alfabetakuntza (osoa), anitez apalago zen emazteena, hirian ere bai (neurri tikiagoan bizen ere). Konpara, adibidez, Baiona, Donibane Lohizun eta Pauko datuak : Baionan gizonetan 66,8k siñatzen dute eta emazteetan % 40,6k. Donibane Lohizunen gizonetan % 37,8k izenpetzen dute, eta emazteetan 27,5ek ; aldiz, Pauen gizonetan % 71,3k badakite siñatzen, eta emazteetan % 27,8k. Halere, Euskal Herrian ere ez dira oro berdin ; ikus, adibidez, zer aldea den puntu horretan Donapaleuren eta Donibane Garaziren artean. Gizonetan portzentzia bertsuak ditugularik 1777-1785 urteetako ezkonlagunen izenpetzeetan (% 48,2 eta % 46,6), emazteetan arras desberdinak dira : % 7,1 eta % 33,3 ; (ik. Pontet-Fournigué 1990 : 537).

19. D. J. Garatek berak 1808an Savary-ri eginikako txostenean aipatzen du euskaldunen egoera esko-latzeari buruz, dioela : *Avant la Révolution, des deux côtés des Pyrénées, tous les Basques, quoique très ignorants, savaient presque tous lire et écrire ; s'ils ont perdu cette instruction élémentaire, ils pourraient bientôt la reprendre, et toutes les connaissances d'hydrographie nécessaires au pilotage, souvent très utiles au matelots, il faudrait les leur donner en basque* (ik. Duhart 1994, 2 : 119) Garat, Iraultza denboran Hezkuntza ministroa izan bizen, eta haren gerizapean sortu baziren geroztik hain garrantzi handia izan duten Frantziako *escola normalak*, zen bezalakoa zen, eta ez bide da horko aipua hitzegiak hartzeko, are gutiago mugaz hegoaldeko egoeraz ari denean. Halere, haren erranak, gauzen edertzeko nahikeria alde batetik emanet ere, zerbait adierazten duke : jendeak arras ezjakinak izan arren (*très ignorants* dio), anitezek bazeiketen irakurzen, beren mintzairan bederen. Ez, segurenez ere *kasi denek*, dioen bezala (gizo-

nezkoak bakarrik gogoan izanik hain segur garai hartan), baina bai parte adierazgarri batek. Ohargarria da Garantziat euskaraz egiteko dela itsas gaietako irakaskintza teknikoa.

20. Horrela Donibane Lohizunen Derratxou izeneko bat, errejent gisa aritzeko aurkeztu zen, hartaz hauxe errana izan baitzen : qu'il ne connaîtait pas l'orthographe, qu'il était faible en calcul, mais qu'il a été jugé en état d'enseigner à lire et à écrire aux enfants. (Aipua G. Pialoux-ek ematen du, *Saint Jean de Luz* liburuan, II, taldeleana, 1994 : 157).

21. Lan hori Urquijo funtsean, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean, aurki daiteke, nahiz ikusi ahal izan dugun mikrofilmian bederen ez den ageri *Beaumont* delakoaren siñadura. Hitz batez anonimo gisa agertzen da argazki hartan liburuxka.

22. Jatorriko irarlanaren orrialdeak kortxeten artean ematen ditut usaian bezala. Testuan zuzenketak egiten direnean, forma zuzenduaren ondoan ematen dugu jatorrikoa, kortxeten artean.

### Bibliografía

- Ariès, P. 1960. *L'enfant et la vie familiale sous l'Ancien Régime*, argitalpen berria, 1973, Le Seuil, Paris.
- Belapeyre, A. 1696. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Gingo Jaunaren eçagutgia, salvatu içateco*, fac-simileko argitalpena eta J.-L. Davantéen edizioa kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983. Ikus halaber P. Agirreren doktore tesia, EHU, 1996.
- Butel, P. & Mandon, G. 1977. « Alphabétisation et scolarisation en Aquitaine », in Furet & Ozouf (zuzend.), *Lire et écrire. L'alphabétisation des Français de Calvin à Jules Ferry*, 07-41.
- Castagnet, V. 1977. « Une dynastie d'évêques au XVIII<sup>e</sup> siècle : les Révol et Montillet », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 69-98.
- Croix, A. & Quénart, J. 1998. *Histoire de culturelle de la France. De la Renaissance à l'aube des lumières*. J.-P. Roux eta J.-F. Sirinelli-ren zuzendaritzapean egin obrako bigarren liburukia, Le Seuil, Paris.
- Darrobers, J.-N. 1994. « Saint-Jean-de-Luz au XVIII<sup>e</sup> siècle » in *Saint Jean de Luz, II*, Ekaina, Donibane Lohizune.
- Duhart, M. 1994. *Dominique Joseph Garat (1749-1833)*, 2 lib., *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* delakoaren separatak, Baiona.
- M. Fleury & S. Valmary, 1957. « Les progrès de l'instruction élémentaire de Louis XIV à Napoléon III d'après l'enquête de L. Maggiolo (1877-1879) », *Population* (janvier-mars).
- Furet, F. & Ozouf, J. (zuzend.). 1977. *Lire et écrire. L'alphabétisation des Français de Calvin à Jules Ferry*, 2 lib. Éditions de Minuit, Paris.
- Furet, F. & Sachs, W. 1974. « La croissance de l'alphabétisation en France », *Annales en Sciences sociales*, 3.
- Haristoy, Abbé. 1890-1891. « Relevé des procès-verbaux des visites pastorales de NN. SS. De Beauvau et de Bellefont, évêques de Bayonne », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 01-45.
- Hourmat, P. 1986. *Histoire de Bayonne*, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Baiona.
- Julia, D. 1997. « Lectures et Contre-Réforme », in G. Cavallo & R. Chartier, *Histoire de la lecture dans le monde occidental*, Le Seuil, Paris, 277-314.
- Lafourcade, M. 1978. *Les contrats de mariage en Labourd sous le règne de Louis XVI. Etude juridique et sociologique*, Doktore tesia, Bordele I, 3 lib.
- Muchenbled, R. 1990. *Société, cultures et mentalités dans la France moderne, XVIe-XVIIe siècle*, Colin, Paris.
- Nogaret, J. 1925. *Saint Jean de Luz des origines à nos jours*, Baiona.
- Pontet-Fournigué, J. 1990. *Bayonne, un destin de ville moyenne à l'époque moderne*, J&D éditions, Miarrizte.
- Pontet, J. 1996. « Compte rendu du mémoire de maîtrise en histoire d'Anne Delpeuch : *Etude démographique d'une société coutumière : Ustaritz de 1745 à 1850.* », *Lapurdi*, 1, 229-233.
- Poussou, J.-P. 1977. « Recherches sur l'alphabétisation de l'Aquitaine au XVIII<sup>e</sup> siècle », in Furet & Ozouf (zuzend.), 295-347.
- Sérurier, M. le Vicomte de – (1873-1874) : « De l'instruction primaire dans la région des Pyrénées occidentales et spécialement en Béarn depuis la fin du XIV<sup>e</sup> siècle jusqu'en 1789 », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, Pau, 224-282.
- Soulice, L. 1872. « Statistique de l'ignorance dans le département des Basses-Pyrénées », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, Pau, 41-53.
- Soulice, L. 1880. « Notes pour servir à l'histoire de l'instruction primaire dans les Basses-Pyrénées. 1385-1880 », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, Pau, 01-64.
- Taldelana. 1994. *Saint-Jean-de-Luz, bigarren lib.* Ekaina, Donibane Lohizun.
- Vinson, J. 1891 & 1898. *Bibliographie de la langue basque, I & II*, ASJUren argitalpena liburu bakarrean, 1984, Gipuzkoako Aldundia, Donostia.

## Résumé

L'article (dont le titre peut se traduire : *L'instruction en langue basque : un petit livre scolaire datant de la période révolutionnaire, dans le prolongement de l'enseignement des petites écoles*) se situe dans le cadre d'une recherche plus générale sur les conditions de la formation d'un lectorat en langue basque aux XVII<sup>e</sup> et XVIII<sup>e</sup> siècle. Il est consacré d'une part à une présentation de l'enseignement populaire dans les petites écoles de Basse-Navarre, Labourd et Soule, d'autre part, à l'édition d'un texte imprimé sans date, mais remontant probablement aux toutes dernières années du XVIII<sup>e</sup> siècle, et qui représente le premier opuscule scolaire connu rédigé en langue basque, en dehors des catéchismes.

Cet imprimé, décrit par Vinson dans sa bibliographie, mais dont le texte n'avait pas été republié, est surtout intéressant par le reflet qu'il nous donne de ce qu'a pu être l'enseignement populaire dans les provinces basques septentrionales jusqu'au XIX<sup>e</sup> siècle. Bien que relativement tardif et contenant donc des éléments novateurs par rapport à ce que l'on peut supposer de l'enseignement des petites écoles dans les années précédant la Révolution, il demeure dans cette tradition en particulier dans sa forme, puisqu'il est fondé comme les catéchismes sur un patron questions-réponses, et qu'il est rédigé en basque.

Le livret comprend deux textes : deux séries de questions-réponses (chacune ayant son titre), nettement séparées, car dissemblables dans leur contenu, malgré certains points traités dans les deux parties. Le premier correspond à un livre de culture religieuse (pas un catéchisme) ; le second plutôt à un livre d'instruction générale (histoire, géographie, références culturelles élémentaires).

L'enseignement des petites écoles a été peu évoqué jusqu'ici dans la littérature relative au Pays Basque, alors que c'est sans doute sur lui qu'a reposé durant environ deux siècles la littérature d'expression basque dans les milieux populaires. On peut en effet supposer que c'est dans ce cadre que s'est formé un lectorat bascophone, souvent peu ou pas du tout lettré, mais susceptible d'accéder à une telle littérature, principalement fondée sur l'éducation religieuse, et largement constituée de rééditions.

Les principales sources regardant ces écoles, et exploitées dans l'article, sont constituées par les ordonnances d'administration religieuse publiées par Belapeyre en tête de son catéchisme souletin de 1696, et les comptes-rendus des visites pastorales des évêques, tels qu'ils ont été réalisés au siècle dernier par Sérurier (1873-1874) et, surtout, Haristoy (1890-1891). Divers travaux relatifs aux conditions de l'enseignement de la lecture et de l'écriture en France (Aries 1960, Furet et Ozouf 1977, Muchenbled 1990, Croix et Quiénart 1998), et singulièrement en Aquitaine (Butel et Mandon 1977, Poussou 1977) à cette époque permettent de bien situer cet enseignement dans un cadre plus général, où l'on constate, à côté de l'enseignement disons classique, l'existence d'une scolarisation i) pouvant être limitée à la lecture, ii) largement soumise au contrôle du clergé car associée à l'enseignement du catéchisme, iii) recourant essentiellement à la langue vernaculaire comme langue de lecture, iv) mise en œuvre par un personnel peu qualifié et certainement mal rétribué, malgré le caractère souvent public ou semi-public de ces écoles, v) et faisant apparaître des oppositions fortes, d'ordre géographique (ville vs campagne), sociale (petite bourgeoisie vs artisans vs paysans) et sexuelle (enseignement masculin vs enseignement féminin).